

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

EITBren aurkako espedienteetan alde interesatuaren izaera ez onartzeko Industria Ministerioak hartutako erabakia errekurrituko du Gobernuak

Ukapenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztea erabaki du

Asteazkena, 2016.eko urriak 19

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jartzeko erabakia hartu du, Foru Administrazioari alde interesatuaren izaera ez emategatik EITB eta Itelazpi SA enpresaren aurka jarraitzen diren zehapen-espedienteetan.

Maiatzaren 20an, Gobernuak ministerioari EITBren aurkako espedienteetan pertsonatzeko eskaera egitea erabaki zuen, une horretan emandako emisioak eteteko kautelazko neurrien altxatzea babesteko asmoz, eta haien jarraipena modu iragankorrean bermatzeko. Horretarako, Gobernuak 2013an Nafarroako Parlamentuak onartutako mozioaren mandatua aipatzen zuen; bertan, Foru Gobernuari eskatzen zion ETB LTD bitartez hartzeko aukera erraztu zezala.

Eskaera hori Industria Ministerioko Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizarterako Estatuko Idazkaritzak maiatzaren 27an ukatu zuen. Erabaki horren ondoren, Nafarroako Gobernuak uztailaren 29an Idazkaritza horren aurrean aurretiazko errekerimendu bat aurkeztu zuen ukapen hori baliogabetu zezan.

Legeak ezarritako hilabeteko epea igaro ondoren Idazkaritzaren aldetik erantzunik ez dela jaso ikusita, Gobernuak administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jartzea erabaki du orain EITBren aurkako espedienteetan pertsonazioa lortze aldera.